



ONDARROAKO UDALA

## BANDOA

Katuei jaten ematearen ondorioz sortzen diren arazoengatik (zikinkeria, usainak...) gero eta kexa gehiago ari gara jasotzen Ondarroako Udalean. Auzokoentzat arazo handia da baina ez hori bakarrik, osasun arazo larria ere izan daiteke katu hauek ez daukate eta ezelako sanitare kontrolik.

Arazo hau bizilagunen laguntzari esker konpondu daiteke, neurri handi batean, behintzat. Leku publikoetan katuei jaten ez ematea da konponbidea. Batetik, arratoi plagak euren kontrolpean egongo liriteke, eta bestetik, euren kasa zer jan topa ezinda dabiltzan katuak kalean ez liriteke hainbeste ugalduko.

Arazoa guztion artean bideratu eta konpontzeko **LEKU PUBLIKOETAN KATUEI JATEN EZ EMATEA** eskatzen dizuegu.

Ondarroan, 2011ko abuztuaren 4an

Alkatea

Argia Ituarte Arkotxa

